Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko martxoaren 24a, asteazkena — 55 — Miércoles, a 24 de marzo de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*149/2021 Foru agindua, martxoaren 18koa, zeinaren bidez onesten baita makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko tributuan kuota finkoei aplikatuko zaien hobaria.*

Maiatzaren 5eko 2/2020 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituenak, xedatuta utzi zuen 4. artikuluan ezen Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen otsailaren 1eko 1/2005 Foru Arauak 12. artikuluan aurreikusten dituen kuota finkoak hobaritu egingo direla makinak edo aparatu automatikoak ustiatuz egiten den jokoaren gaineko tributua likidatzen denean.

Horrela, 2020ko lehen hiruhilekoko likidazioari dagokion kuotaren zatirako, 100eko 15eko hobaria onetsi zen, eta 2020ko bigarren hiruhilekoari dagokion zatirako, ordea, hobari hori 100eko 100ekoa izango zela erabaki zen.

Geroago, aipatutako 2/2020 Foru Dekretu-Arauaren azken xedapenetako lehenengoan emandako arau ahalmenaz baliatuta, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak urtarrilaren 14ko 15/2021 Foru Agindua onetsi zuen, eta haren bitartez erabaki zuen makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko tributuaren kuota finkoan 100eko 70ko hobaria aplikatzea, 2020ko laugarren hiruhilekoaren likidazioari dagokionez.

Bestalde, ekainaren 30eko 84/2020 Dekretuak, Covid-19ak jokoaren sektorean duen eraginari aurre egiteko premiazko neurriei buruzkoak, aldi baterako eten zuen, 2020ko irailaren 30era arte zehazki, makinak ustiatzeko baimenen eragin-kortasuna. Hala ere, baimenaren titularrak edo kokatze buletinaren sinatzaileak beti dauka etenaldia kentzea epea amaitu aurretik, hura ekarri zuen ezinbesteko arrazoia desagertzen bada. Epe hori hiru hilabetez luzatu zen gero, Joko eta Ikuskizunen zuzendariak 2020ko irailaren 25ean emandako Ebazpenaren bidez.

Egungo egoeraren azterketak, zeinak agerian utzi baitu behar-beharrezkoa dela aparteko neurriak mantentzea Covid-19ak sortutako krisia jokoaren sektore ekonomikoari gainditzen laguntzeko, berekin ekarri du onartzea martxoaren 16ko 108/2021 Dekretua, Covid-19aren inpaktuari aurre egiteko neurriei jokoaren sektorean jarraipena ematekoa. Dekretu horren 1. artikuluak ezartzen duenez, jolas makinak ustiatzeko baimenak etenda badaude 2020ko abenduren 31n, etenda jarraituko dute 2021eko ekainaren 30era arte. Orobat, dio ezen, Covid-19ak sortutako ezohiko egoerak iraunez gero, Jokoa arautzen duen Agintaritzak ahalmena duela baimenen etenaldia egoki jotzen duen denboran luzatzeko, Ebazpen bidez, eta hainbat luzapen egin ahal izango dituela elkarren segidan, 2021eko abenduaren 31ra arte.

Horrek guztiak, gehi urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu zen eta azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuak oraingoz 2021eko maiatzaren 9ra arte luzatu

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 149/2021 de 18 de marzo por la que se aprueba la bonificación de las cuotas fijas aplicable en el tributo sobre el juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos.*

El artículo 4 del Decreto Foral-Norma 2/2020, de 5 de mayo, sobre medidas complementarias de carácter tributario como consecuencia de la crisis sanitaria del Covid-19, estableció determinadas bonificaciones en las cuotas fijas del tributo sobre el juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 1/2005, de 1 de febrero, por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Así, por lo que a la parte de la cuota correspondiente a la liquidación del primer trimestre de 2020 se refiere, determinó una bonificación del 15 por 100, mientras que para la parte de la cuota correspondiente a la liquidación del segundo trimestre de 2020 estableció una bonificación del 100 por 100.

Posteriormente, y en uso de la habilitación normativa otorgada en el apartado 3 de la disposición final primera del citado Decreto Foral-Norma 2/2020, el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas aprobó la Orden Foral 15/2021, de 14 de enero de 2021, con objeto de establecer una bonificación del 70 por 100 en la referida cuota fija del tributo sobre el juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos, correspondiente a la liquidación del cuarto trimestre de 2020.

Por otro lado, el Decreto 84/2020, de 30 de junio, de medidas urgentes en el sector de juego para hacer frente al impacto de la Covid-19 abordó la suspensión temporal de la efectividad de los permisos de explotación de máquinas hasta el 30 de septiembre de 2020, pudiendo, no obstante, la persona titular del permiso o firmante de un boletín de emplazamiento levantar la suspensión antes del plazo previsto en caso de desaparición de la causa de fuerza mayor que motivó la suspensión. Este plazo fue prorrogado por un trimestre más en virtud de la Resolución de 25 de septiembre de 2020 del Director de Juego y Espectáculos.

El análisis de la situación actual, que avala la necesidad de mantener medidas extraordinarias que ayuden al sector económico del juego a superar la crisis generada por la Covid-19, deriva en la aprobación del Decreto 108/2021, de 16 de marzo, de continuidad de las medidas, en el sector del juego, para hacer frente al impacto de la Covid-19, cuyo artículo 1 establece que aquellos permisos de explotación de máquinas de juego que se encuentren suspendidos a 31 de diciembre de 2020 continuarán en situación de suspensión hasta el 30 de junio de 2021, y habilita a la Autoridad Reguladora de Juego, en caso de persistir la situación extraordinaria generada por la pandemia de la Covid-19, a prorrogar mediante Resolución la situación de suspensión de los permisos por el período que considere necesario, pudiendo hacer sucesivas prórrogas hasta el 31 de diciembre de 2021.

Lo anterior, además de las medidas restrictivas adoptadas en el ámbito de la actual declaración del estado de alarma para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-

EK\CV GAO-I-2021-01956

duen alarma egoeraren barruan SARS-CoV-2ak eragindako kutsatzeen hedapena geldiarazteko hartu diren prebentzio neurri espezifikoek, zeinak zuzeneko eragina baitute jatetxe eta ostalaritza establezimenduen funtzionamenduan eta, 2021eko lehen hilabeteetan aplikatzen jarraitzeaz gainera, bere horretan mantendu baitira, gaur egungo egoera epidemiologikora egokituta –horretarako, lehendakariak martxoaren 6ko 13/2021 Dekretua onartu du, hain zuzen ere prebentzio neurri espezifikoak 2021ean testu bakar batean lehen aldiz bateratu eta eguneratzen dituena, alarma egoeraren deklarazioaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko–, justifikatzen dute hobari bat aplikatzea zergaren kuota finkoan.

Horrenbestez, foru agindu honen xedea da makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoaren gaineko tributuaren kuota finkoan hobari bat ezartzea, makina edo aparatu automatikoa ustiatzeko baimena etenda dagoen egun kopuruaren arabera kalkulatua.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoetan aplikagarri diren kuota finkoak hobaritzea.*

*Bat.* Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen otsailaren 1eko 1/2005 Foru Arauak 12. artikuluan aurreikusten dituen kuota finkoen zatiari hobari bat aplikatuko zaio, hurrengo bigarren apartatuan xedatzen diren baldintzetan.

*Bi.* Jokoaren sektorean COVID-19aren eraginari aurre egiteko hartu diren neurriengatik makina edo aparatu automatikoa ustiatzeko baimena etenda egon den egun bakoitzeko aplikatuko da hobaria, eta honako hau izango da:

a) «B motako» makinak edo saria duten jolas makinak:

— Hobaria: 7,6389 euro.

— «B motako» makina edo aparatu automatikoetan aldi berean bi jokalarik edo gehiagok esku hartu badezakete eta horietako bakoitzaren jokoa beste jokalariek egindakoarekiko independentea bada, hobari hauek aplikatuko dira:

Bi jokalari dituzten makinak edo aparatuak: 15,2778 euro.

Hiru jokalari edo gehiago dituzten makinak edo aparatuak: 15,2778 euro gehi kopuru horren % 15, bitik gorako jokalari bakoitzeko.

b) «C motako» makinak, edo ausazkoak:

— Hobaria: 11,1806 euro.

— «C motako» makina edo aparatu automatikoetan aldi berean bi jokalarik edo gehiagok esku hartu badezakete eta horietako bakoitzaren jokoa beste jokalariek egindakoarekiko independentea bada, hobari hauek aplikatuko dira:

Bi jokalari dituzten makinak edo aparatuak: 22,3611 euro.

Hiru jokalari edo gehiago dituzten makinak edo aparatuak: 22,3611 euro gehi kopuru horren % 15, bitik gorako jokalari bakoitzeko.

*Hiru.* Aurreko apartatuan aurreikusitako hobaria aplikatuta ateratzen den kuota goitik biribilduko da, bi hamartarrekin.

*Lau.* Artikulu honetan aurreikusitako hobaria aplikatzeak ezingo du berekin ekarri 1/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko hirugarren apartatuan aipatzen den hainbanaketatik ondorioztatzen den kuotak emaitza negatiboa izatea.

CoV-2, declarado por el Real Decreto 926/2020, de 25 de octubre, prorrogado inicialmente hasta el 9 de mayo de 2021 por el Real Decreto 956/2020, de 3 de noviembre, que afectan directamente al funcionamiento de los establecimientos de hostelería y restauración, que han continuado durante los primeros meses de 2021, y que se mantienen, si bien adecuadas a la situación epidemiológica actual, con la reciente aprobación del Decreto 13/2021, de 6 de marzo, del Lehendakari, de primera refundición en 2021 en un único texto y actualización de medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, justifican la aplicación de una bonificación en la cuota fija del tributo.

En consecuencia, la presente orden foral tiene por objeto establecer una bonificación en la cuota fija del tributo sobre el juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos, que se calculará en función de los días que el permiso de explotación de la máquina o aparato automático se encuentre suspendido.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo único. Bonificación de las cuotas fijas aplicables en los juegos mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos.*

*Uno.* Se establece una bonificación, en los términos dispuestos en el apartado dos siguiente, a la parte de las cuotas fijas previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 1/2005, de 1 de febrero, por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Dos.* La bonificación se aplicará por cada día que el permiso de explotación de la máquina o aparato automático se encuentre en situación de suspensión, como consecuencia de las medidas adoptadas en el sector del juego para hacer frente al impacto de la COVID-19, que ascenderá a:

a) Máquinas «tipo B» o recreativas con premio:

— Bonificación: 7,6389 euros.

— Cuando se trate de máquinas o aparatos automáticos «tipo B» en los que puedan intervenir dos o más jugadores de forma simultánea y siempre que el juego de cada uno de ellos sea independiente del realizado por otros jugadores, serán de aplicación las siguientes bonificaciones:

Máquinas o aparatos de dos jugadores: 15,2778 euros.

Máquinas o aparatos de tres o más jugadores: 15,2778 euros más un 15 % de esta cantidad por cada jugador que exceda de dos.

b) Máquinas «tipo C», o de azar:

— Bonificación: 11,1806 euros.

— Cuando se trate de máquinas o aparatos automáticos «tipo C» en los que puedan intervenir dos o más jugadores de forma simultánea y siempre que el juego de cada uno de ellos sea independiente del realizado por otros jugadores, serán de aplicación las siguientes bonificaciones:

Máquinas o aparatos de dos jugadores: 22,3611 euros.

Máquinas o aparatos de tres o más jugadores: 22,3611 euros más un 15 % de esta cantidad por cada jugador que exceda de dos.

*Tres.* La cuota del período resultante de la aplicación de la bonificación prevista en el apartado anterior, se redondeará, por exceso, con dos decimales.

*Cuatro.* La aplicación de la bonificación prevista en este artículo no podrá dar lugar a que la cuota resultante del prorrateo a que se refiere el apartado Tres del citado artículo 12 de la Norma Foral 1/2005 tenga un resultado negativo.

EK\CV GAO-I-2021-01956

*Bost.* Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da honako hauek indarrean dauden bitartean: martxoaren 16 ko 108/2021 Dekretua, Covid-19aren inpaktuari aurre egiteko neurriei jokoaren sektorean jarraipena ematen diena, eta, hala badagokio, haren indarraldia luzatzen duten xedapenak.

*Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko martxoaren 18a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(1956)

*Cinco.* Lo dispuesto en este artículo se aplicará durante la vigencia del Decreto 108/2021, de 16 de marzo, de continuidad de las medidas, en el sector del juego, para hacer frente al impacto de la Covid-19, y de las disposiciones que, en su caso, regulen la prórroga de su vigencia temporal.

*Disposición final única. Entrada en vigor.*

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 18 de marzo de 2021.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jokin Perona Lerchundi.

(1956)